



## **KANPOKO PREBENTZIO ZERBITZU BATEK EGINDAKO DATU TRATAMENDU BATEKIN ZER IKUSIA DUEN KONTSULTA BATEN GAINEKO IRIZPENA.**

### **AURREKARIAK**

**LEHENENGOA.** 2015eko apirilaren 29an Datuak Babesteko Euskal Bulegoan Euskal Autonomia Erkidegoko udal bateko langile baten irizpen eskaera bat jaso genuen, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Kontsulta idazkian honakoa adierazten da:

*"Aldizkako osasun kontrolak egitera behartuta nago udalean egiten dudan lanagatik. Aurten maiatzaren 4rako neukan hitzordua.*

*Mediku azterketa egin behar didan erakundea [...] entitatea da, XXXXX udaleko prebentzio zerbitzua delako.*

*Mediku azterketa egiteko, langileari eskatzen diote dokumentu bat sinatzeko, eta dokumentuak honakoa dio hitzez hitz:*

*"- Dokumentu honetan jasotako datu pertsonalak eta mediku azterketan atzeman daitezkeenak erakunde honen fitxategi batean jasoko dira. Fitxategiaren helburu bakarra laneko arriskuak prebenitzeko sozietateek dituzten helburu legitimoekin lotuta dago. Nahi izanez gero, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuei aurka egiteko eskubideak balia ditzakezu, idazki bat bidalita zure laneko historia klinikoa osatzeko helburua duen [...] entitatearen fitxategi arduradunari".*

*(Dokumentuaren kopia erantsi dut)*

*Apirilaren 21ean bezperako datadun komunikazio bat helarazi nion posta elektronikoko bidez prebentzio zerbitzuari, mediku azterketa egiteko prest nengoela esateko, baina ez nengoela prest onartzeko mediku azterketen ondorioz lortutako informazioa hirugarrenei jakinarazteko edo lagatzeko. Era berean, adierazi nien nik neuk emango niela behar zuten informazioa edo datuak tartean egon zitezkeen hirugarrenei.*

*(Dokumentuaren kopia erantsi dut)*

*[...]-ek mezu elektronikoko bat helarazi zion langileari Udaleko Langileen Zerbitzuaren bidez, eta honakoa adierazi:*

*"Lege aholkularitza kasua aztertu du eta sistemak, adostasuna adierazteko, jadanik ontzat eman dituen ereduak baino ez ditu onartzen, guztiz legezkoak direlako..."*

*(Mezu elektronikokoaren kopia erantsi dut)*

*Kontuan hartuta nire ustez apirilaren 21ean [...]era bidali nuen komunikazioak argi eta garbi adierazten duela nire datu medikuak eta pertsonalak erabiltzeko ematen dudan baimenaren helmenean, eta helmenean ez diola mugarik jartzen [...] entitateari bere lana egiteko, eta ikusita oraindik mediku azterketa egin gabe nengoela, honako auzia argitu arte,*

*DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOARI ESKATZEN DIOT, aurkeztu dudana idazkia eta erantsi ditudan dokumentuak kontuan hartuta, eta egin beharreko*



*ikerketak egin ostean, irizpen bat egin dezala, batetik, [...] -ek egindako errekerimendua egokia den ala ez argitzeko, horren arabera erabakitzekeo derrigorrezko mediku azterketa egin ala ez, langilea naizen aldetik uste dudalako gehiegizkoa dela lanerako; eta bestetik, jakiteko ea langilearen nahia legezkoa den ala ez, eta ea ondo ezkontzen den zerbitzuko premietara; guztia Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearekin bat”.*

Honakoak ere aurkeztu dituzte: XXXXX Udalak salatzaileari bidalitako jakinarazpena, [...] entitateak erabilitako adostasun informatuaren eredia eta salatzaileak [...] entitatera bidalitako gutuna esanez berak bidaliko diola behar den informazioa kontratistari, azpikontratitzen badute. Prebentzio Zerbitzuko langileen eta XXXXX Udaleko langileen arteko mezu elektronikoen kopiak ere aurkeztu dira.

[...] entitatearen dokumentuak honako aurreikuspena du:

*“- Beharrezkoa ikusten bada laneko arriskuen prebentzioaren arloko proba kliniko berezia azpikontratatea, zure datuak [...] entitateak kontratatutako zentroek edo profesionalak atzitu eta tratatu ahal izango dituzte, zure laneko historia kliniko osatzeko helburuarekin”.*

**BIGARRENA.** Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.*

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

## KONTUAN HARTZEKOAK

### I

Agentziari egin dioten kontsulta langilearen osasun datuei eta enpresak, laneko osasuna zaintzeko asmoz, egiten duen erabilerari buruzkoa da. Horregatik, egin beharreko lehenengo gauza da aztertzea zer dioten mota horretako informazioari buruz Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (aurrerantzean DBLO).

DBLOren 7. artikulua bereziki babestutako datuei buruzkoa da, eta osasun datuak era horretako datuak dira. Artikulu horren 3. idatz-zatia osasun datuen erregimenaz ari da eta zera xedatzen du:

*“Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori”.*

Osasun datuak tratatzeko, ukituak esanbidez onartu behar du hori; hala ere, 7.6 artikuluari erreparatuz gero, ikusten da halako datuak tratatzea zilegi dela *“datu horiek tratatzea beharrezkoa denean prebentziorako edo medikuaren diagnostikoarentzat, osasun-laguntza emateko edo tratamendu medikoentzat edo osasun-zerbitzuak kudeatzeko,*



*baldin eta datu horiek tratatzen baditu lanbide-isiltasuna duen osasun-arloko profesional batek, edo lanbide-isiltasunaren pareko betebeharra duen beste pertsonaren batek”.*

Beraz, artikulua hori ikusita, esan dezakegu langile baten osasun datuak, babes berezia dutenez, honako baldintzak bete behar direla, bere adostasunik gabe tratatzeko:

Lanbide-isiltasuna duen osasun-arloko profesional batek edo lanbide-isiltasunaren pareko betebeharra duen beste pertsonaren batek tratatzen baditu datuak.

Tratamenduaren helburua osasuna izatea, honakoak barne hartuta: prebentzioa, mediku diagnostikoa, osasun asistentzia edo osasun zerbitzuen kudeaketa.

Esparru orokorra gogora ekarri eta gero, segidan aztertuko dugu langileen osasun datuen berriazko tratamendua prebentzio zerbitzuetan.

## II

Konstituzioko 40.2 artikulua botere publikoei ezarri die, politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarrien artean, laneko segurtasun eta higiena zaintzea. Konstituzioaren agindu horrek dakar langileen osasunaz arduratuko den politika garatu beharra, hain zuzen, lanetik etorritako arriskuak prebenituko dituen.

Bestalde, Langileen segurtasuna eta osasuna lanean hobetzeko neurri sustatzaileak aplikatzeari buruzko 89/391/CEE Zuzentarauak ezarri du Europar Batasunean prebentzio-politikaren esparru juridiko orokorra. Laneko Arriskuak Prebenitzeari buruzko azaroren 8ko 31/1995 Legeak ekarri zuen barne ordenamendura Europako 89/391/CEE Zuzentaruak. 31/1995 Legearen III. Kapituluak “eskubideei eta betebeharrei” buruzkoa da, eta 14. artikulua ezartzen du langileek benetako babesa izateko eskubidea dutela, eta, ondorioz, langileen segurtasuna eta osasuna babesteko egin beharreko jarduerak guztiak gauzatzeko egin beharra daukela enpresaburuak. Esan behar da administrazio publikoek ere betebeharrak hori dutela langileekiko.

Beraz, administrazio publikoaren esparruan ere langileek eskubidea dute laneko segurtasun eta higienaren arloan babes eraginkorra izateko; izan ere, horixe baita Enplegatuen Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 14 l) artikuluan xedatutakoa.

Bestalde, horrez gain, arloko legedia honakoek osatzen dute funtsean: Laneko arriskuen prebentziorako azaroren 8ko 31/1995 Legea (aurrerantzean LAPL) eta 31/1995 Legea garatzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua

Laneko arriskuen prebentziorako azaroren 8ko 31/1995 Legearen 2. artikulua dio zein den legearen xedea:

*“Langileen segurtasuna eta osasuna sustatzea, lanak eratorritako arriskuak prebenitzeko behar diren neurriak aplikatuz eta behar diren jarduerak gauzatzuz”.*

Helburu hori betetzeko, Legearen 14. artikulua hainbat eskubide eta betebeharrak finkatu ditu, eta uste dugu aipatzeko modukoa dela 2. idatz-zatiak dioena:

*“Babes-egin beharra betetzeko, enpresaburuak bere zerbitzuean dauden langileen segurtasuna eta osasuna babestu beharko ditu, lanarekin zerikusia duten alde guztietan”. Ondore horietarako, enpresaburuak, bere erantzukizunen esparruan, lan-arriskuak prebenituko ditu, enpresan prebentzio-jarduerak ezarriz, eta langileen segurtasun eta osasuna babesteko behar besteko neurriak hartuz; horretarako, aintzat hartuko ditu hurrengo artikuluetan jasotako berezitasunak, lan-arriskuak*



*prebenitzeko planari, arriskuak ebaluatzeari, langileen informazioa, kontsulta zein partaidetza eta prestakuntzari, larrialdietan eta arrisku larri eta hur-hurrekoetan jarduteari eta osasunaren zaintzari dagokienez. Horrez gain, enpresaburuak lan-arriskuak prebenituko ditu, erakunde bat eratuz eta behar besteko tresnen bidez, lege honen IV. kapituluaren ezarritakoaren arabera.*

*Enpresaburuak prebentzio-jardueraren segimendua modu iraunkorren gauzatuko du, saihestu ez diren arriskuak identifikatu, ebaluatu eta kontrolatzeko jarduerak eta babes-mailak hobetzeko. Orobat, enpresaburuak behar besteko aginduak eman ditzake, aurreko paragrafoan aipatu prebentzio-neurriak bat etor daitezela lana egiteko inguruabarrek izan ditzaketela aldarazpenekin”.*

LAPLk 16. artikulua hainbat modu aipatzen ditu eskubide eta betebeharrak horiek benetan gauzatzeko: lan-arriskuak prebenitzeko plana, arriskuak ebaluatzea eta prebentzio-jardura planifikatzea. Legearen 22. artikulua arautzen du zertan den osasuna zaintzea. Puntu oso garrantzitsua denez, oso-osorik ekarri nahi dugu hona:

*“22. artikulua. Osasuna zaintzea.*

*1. Enpresaburuak bere zerbitzura lanean ari diren langileen osasun-egoera zainduko duela bermatu behar du, lanak berak sortzen dituen arriskuen arabera.*

*Zaintza hori langileak onartzen duenean bakarrik egin ahal izango da. Langileen ordezkariak egindako txostenaren ondoren, honako kasu hauetan baino ez da borondatezkoa izango: langileen osasunari buruzko lan-baldintzen ondorioak aztertzeke osasun-azterketak egitea nahitaezkoa bada, edo langilearen osasun-egoera langilearentzat arriskutsua ote den egiaztatzeke, edo arrisku bereziak babesteari eta arriskugarritasun bereziko jarduerak babesteari buruz legezko xedapenean horrela ezarrita badago.*

*Edozein kasutan ere, langileari ahalik kalterik gutxiena egiten dioten azterketak eta frogak aukeratu behar dira, bai eta arriskuarekin proportzionalak direnak ere.*

*2. Langileen osasuna zaintzeko eta kontrolatzeko neurriak beteko dira, langilearen intimitate eta duintasunerako eskubidea eta langile horren osasun-egoeraren inguruko informazio ororen isil-gordea errespetatuz beti.*

*3. Aurreko idatz-zatiak aipatu zaintzaren emaitzak komunikatuko zaizkie ukitutako langileei.*

*4. Langileen osasunaren zaintzaren inguruko datuak ezin izango dira erabili bereizkeria egiteko, ezta langileari kalte egiteko ere.*

*Izaera pertsonaleko mediku-informazioaren berri izango dute soil-soilik pertsonal medikoak eta langileen osasunaren zaintzaz arduratzen den osasun-agintaritzak; informazio horren berri ezin izango zaie eman enpresaburuari edo beste pertsona batzuei, langilearen esanbidezko adostasunik gabe.*

*Hori gorabehera, enpresaburuak eta prebentzio-arloan erantzukizunak dituzten pertsona edo organoek informazioa jaso behar dute, prebentzio-arloan dituzten eginkizunak modu egokian gauza ditzaten. Jaso behar duten informazioa izango da langileak lanpostuan aritzeko duen gaitasunaren inguruan egindako azterketei buruzkoa eta babes zein prebentzio-neurriak ezarri edo hobetzeko beharrezanari buruzkoa.*

*5. Laneko arriskuek hala eskatzen dutenean, langileen osasun-egoera aldian-aldian zaintzeko eskubideak iraungo du, lan-harremanak amaituta ere, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.*



*6. Langileen osasuna zaintzeko eta kontrolatzeko neurriak beteko ditu, egiaztatutako eskumen teknikoa, prestakuntza eta gaitasuna dituen pertsonal sanitarioak”.*

Gure ustez, artikulua garrantzitsua da hori, langileari agintzen diolako kasu batzuetan (Udalak uste du aztertzen arin garen kasua multzo horretakoa dela), eta langilea ados ez badago ere, osasuna zaintzeko eta egiaztatzeko jarduera batzuk egin behar dituela nahitaez. Beraz, kasu honetan esan behar dugu ez dela beharrezkoa langilearen adostasuna, langileak nahitaez egin behar dituelako prebentzio zerbitzuak, hau da, [...]k agintzen dizkion probak.

Datuak babesteari dagokionez, esan dezakegu 6.2 artikuluan jasotako kasuetako bat dela, hau da, adostasunik behar ez duen kasu bat dela: *“datu pertsonalak negozio-, lan- edo administrazio-harreman baten kontratuaren edo aurrekontratuaren zatiei dagozkienean eta datuok beharrezkoak direnean harreman hori mantentzeko edo gauzatzeko”.* Aurreikuspena generikoa bada ere, 7.6 artikulua gehiago zehatzen du, esaten duelako ukituaren datuak tratatzea zilegi dela helburua prebentzioa denean.

Legegileak arreta berezia jarri du prebentzio zerbitzuetan, eta LAPLk prebentzio zerbitzuei buruzko kapitulu oso bat du: IV. kapitulua; eta 30. artikuluan dio enpresaburuaren eginbeharra dela prebentzio zerbitzua eratzea. Hona dioena:

*“1. Lanbide-arriskuak prebenitzeko eginbeharra bete dadin, enpresaburuak langile bat edo batzuk izendatuko ditu, prebentzio horretaz arduratzeko, prebentzio-zerbitzua eratuko du edo enpresatik kanpoko erakunde espezializatu batekin hitzartuko du zerbitzu hori”.*

LAPLren 31.2 artikulua definitzen du zer den prebentzio zerbitzua eta zera dio: *“Prebentzio-zerbitzu gisa ulertuko da prebentzio-jarduerak gauzatzeko behar diren giza baliabideen eta baliabide materialen multzoa, langileen segurtasuna eta osasuna modu egokian berma daitezten. Horretarako, aholkuak eta laguntza emango zaizkie enpresaburuari, langileei eta horien ordezkariari zein ordezkari-organoei espezializatuari”.*

Aztertzen ari garen kasuan udalak kanpoko prebentzio zerbitzu bat hautatu du [...]. Izaera pribatua duen entitate hori da mediku azterketako probetatik ateratzen den informazioa jasoko duen fitxategiaren arduraduna. Eta berariaz dio hala dela langileen identifikazio datuak eskatzeko inprimakiak.

Bestalde, prebentzio zerbitzuak egin nahi duen azpikontratazioari buruz, esan behar dugu fitxategiaren arduradunak izaera pribatua duenez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ezin duela ezer esan prebentzio zerbitzu horrek gero hirugarren azpikontratatu bati egin beharreko datu lagatzeaz edo enkarguaz, baldin eta proba kliniko bereziak beharra ikusten badu. Gogora ekarri behar dugu Agentziak ez duela eskumenik fitxategi pribatuen esparruan, hori dela eta, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren irizpena beharko da aztertzeko nola burutu behar den prebentzio zerbitzu batek azpikontratatuaren hirugarren bati egin beharreko datu lagatzea.

Hala ere, laguntzeko asmoz, gogora ekarri behar dugu datuak lagatzeko nahitaezkoa dela ukituen adostasuna, edo, bestela, DBLOren 12. artikulua dioten tratamendu enkargua adostu, zerbitzu arduratsua emateko, baldin eta hirugarren bati datuak laga behar bazaizkio. Ukituaren adostasuna izanez gero edo tratamendu enkargua adostu, kasu bietan bete beharko da DBLOren 4. artikulua ezartzen duen datuen kalitatearen printzipioa: *“datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu*



*horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko”.*

Beraz, tratatu beharreko datuak datu sentzibleak direla ikusita, ulertzekoa da irizpena eskatu duen pertsona kezkatuta egotea prebentzio erakundeak eman dion adostasun informatuaren inprimaki-ereduarekin, bertan aurreikusten delako datuak azpikontratutako hirugarren bati laga ahal zaizkiola. Ondorioz, kalitatearen printzipioa behar bezala ezartzeko, azpimarratu behar da titularraren adostasunarekin egin ala enkargu bidez egin, ezin dela prebentzio entitateak tratatzen dituen eskatzailearen osasun datuak modu masiboan laga, eta egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak diren datuak baino ez direla lagako.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 3a